


*Hezkuntza
Aiaraldean
Bide berriei
aukerak
zabaltzen*

HAURRESKOLA

BATXILERGOA

LANBIDE HEZIKETA



Laudio Ikastola

“Haurrak janariarekin eraikitzen duen harremana poztasun momentu osasuntsua izan behar da”

Familiak gure espazioa ikustera etortzen direnean sarritan edoskitzeareninguruko zalantza handiak izaten dituzte: Haurra Ikastolan hastean edoskitzearekin jarraitzeko aukera izango dut?

Laudio Txikin, nola ez, erraztu egingo dugu ama edoskitzearekin jarraitzea, berak horrela jarraitu nahi duenera arte. Horretarako lehenik eta behin amarekin elkarrizketa izango dugu eta berarentzat eroso dena jarriko dugu martxan.

Ama batzuk nahiago dute egunero esnea atera eta Ikastolara ekarri. Bertan hozkailuan gorde eta haurra gose denean Maria bainuan berotu eta biberioia emango zaio.

Beste batzuei aldiz, egunero momentu ezberdinetan esnea atera eta izoztea errazago egiten zaie. Ondoren izozte datarekin Laudio Txikira ekarriko dute, izozkailuan gorde eta hortik behar beste hartzen joango gara.

Beste hainbatetan bezala, bidelagun izaten saiatzen gara familiak ahalik eta eroso sentitu daitezen.

Haurrak urtebete izan arte, edota elikagai guztiak sartuta izan arte, elikadura familiaren esku dago. Egunero gosari, bazkari eta askaria, haurrak Ikastolan ematen duen denboraren arabera, etxetik ekarri beharko dute.

Bertan berotu eta, behar denean, prestatuko dugu. Askarirako fruta, adibidez, familiak osorik dakarte eta guk haurrarentzat prestatzen dugu. Bitarte honetan haurra egonkor jesarrita, eta aulkian bere kasa jesartzeko gai izan arte besoetan hartuta, gure belaunen gainean elikatuko da.

“Bidelagun izaten saiatzen gara familiak ahalik eta eroso sentitu daitezen”

Apurka-apurka haurra elikagai

batzuk osorik jaten hasiko da eta Ikastolako jantokian gure sukaldariek prestatzen duten janaria jaten hasiko da. Kasu batzuetan purea izango da



Haurren elikadurari garrantzia handia ematen diote Laudio Txikiko hezitzaileek. **Laudio Ikastola**

“Garrantzitsua izango da une atsegina bihurtzea eta haurrari poztasuna ematea otorduetan”

eta beste batzuetan, familiak horrela erabaki duelako, elikagaiak osorik jaten hasiko da, haur bakoitzak etxetik dakarren pauta jarraituko dugu.

Prozesu honetan guztian baina Laudio Txikiko hezitzaileek otorduak helduaren eta haurraren arteko harremanean une sentibera, atsegina izan behar duela argi dugu. Haur bakoitzak bere erritmoa du. Hainbatek maite dute mantso jatea, estutasunik gabe; beste batzuk berriz, urduritu egiten dira ez bazaie koilarakada bata bestearen atzetik azkar ematen. Garrantzitsua izango da une atsegina bihurtzea eta haurrari poztasuna ematea otorduetan.

Otorduak poztasun iturria izan behar du haurrarentzat.

Sarritan familiak harritu egiten dira kristalezko ontziak,

edalontzi eta platerak, edo metalezko mahai-tresnak erabiltzen ditugula ikustean.

Ohikoa da haurrarentzako plastikozko edalontzi, plater eta tresneria gure etxeetan ikustea, helduok erabiltzen ditugunekin zerikusirik ez dutenak. Ematen du kolorez betetako tresneria hau erabilia umeek hobeto jango dutela. Baina adituek esaten duten bezala, “benetako mahai-tresnekin jaten duten haurren baitan helduek bezala jateko gogoia, nahia eta irrika dago txertatuta.

Umeak haiek zaintzen dituzten helduekin identifikatzen baitira uneoro eta haurren garapen prozesurako hori oso inportantea da”. Beraz, nahikoa litzateke haurraren eskuen tamainarako egokiak diren koilaratxoak, postrekoak adibidez,

eta kristalezko edalontzia aukeratzea. Izan ere kristalezko edalontzia erabiltzean haurrak ikusi ahal du barruan zer dagoen eta zein kopurutan.

Koilaraz jaten dutenean ere kristalezko katiluak erabiltzen ditugu, ez oso handiak baina sakonerarekin, janaria koilaraz har dezatela errazteko, zailagoa egiten zaie eta ohiko plateretatik janaria hartzea.

Egia da kristalezkoa dela eta apurtu daitekeela. Baina helduoi ere edalontzi edo platerak apurtzen zaizkigu eta horregatik dakigu kristala kontu handiarekin erabili behar dela. Aipatu beharra dago, Ikastola kokatuta dagoen inguruak plan hau aurrera eramatea ahalbidetzen digula. Zentzu horretan, pribilegiatu batzuk gara!



Laudio Ikastola

**etorkizun
hobea
sortzeko
hezten
dugu**



LAUDIO
ikastola
www.laudioikastola.eus



IKASTOLAN MATRIKULA ZABALIK

2020an eta 2021ean jaiotakoentzat

HITZORDUA ESKATU

94 672 67 37

matrikula@laudioikastola.eus

Hezkuntza Aiaraldean

Herritarren eta Guraso Elkartearen eskaerei erantzunez "Patio irekiak" programa sustatu du Laudioko Udalak herriko haur eta gazteen jolasteko aukerak aberasteko

helburuarekin. Apirilean abiatuko dute egitasmoa eta 2022ko otsailaren 15era arte luzatuko da. Udalak 17.648,66 euroko inbertsioa egin du programa garatzeko.

Fabian Legorburuko jolastokiko ateak zabalik herriko gazteei aisialdi alternatiba eskaintzeko

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Auzotarren eta Guraso Elkartearen eskaera bati erantzuna emanez "Patio irekiak" egitasmoa abiatu du Laudioko Udalak Aretako Fabian Legorburu Ikastetxean.

Proiektu berritzailea da Aretako ikastetxean abiatutakoa, eta 2021eko apiriletik 2022ko otsailera arte luzatuko da.

Jolaserako eta jarduera librerako hiri-espazio horiek berreskuratzea da proiektuaren xedea Juan Jose Merchan Laudioko Hezkuntza zinegotziak

azaldu duen moduan. "Hezkuntza zerbitzu unitateak HLHko eskola patioak irekitzea proposatu du jolaserako aukerak aberasteko eta familia bateragarri egiten laguntzeko. Fabian Legorburu Ikastetxeko zuzendaritzak, guraso-elkartearekin adostuta, baimena izapidetu dio dagoeneko Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari", adierazi du Merchanek.

Herritarren orori zabalik
COVID-19ak eragindako osasunkrisiakerabat baldintzatu ditu haur eta gazteen eskolaz

kanpoko jarduerak eta jolas-eskaintza, eta horri alternatiba eskaintzea da proiektuaren helburu nagusietako bat.

Apiriletik aurrera, 16:30etik 19:30era herritar orok erabili ahalko du Aretako ikastetxeko jolastokia. 8 urtetik beherako haurrek heldu batez lagunduta joan beharko dira.

17.648,66 euroko inbertsioa
Proiektua garatzeko Laudioko Udalak 17.648,66 euroko inbertsioa egin du.

Partida horrekin patioaren zaintza-zerbitzuaren gastuak beteko dira besteak beste.



Etxaurren Haurreskola

Haurrei euren mugimendu propioak garatzen uzten dien haurreskola

Aiarako Ibaguen auzoan (Zuhatzan) kokatua dago Etxaurren Haurreskola. Bi gela ditu eta bere hezkuntza proiektu propioa du. Haurrei euren mugimenduen bidez "garapena lortzen uztea" dute helburu hezitzaileek.


Modu horretan, helduek "bidelagun" funtzioa hartzen

dute heziketa prozesuan zehar, haurrei euren kabuz egin dezaketen guztia egiten utzita.

"Haurraren erritmoa eta ezetza" errespetatzen dituzte horretarako, "berak bere mugimendua gorputzean bizi, esperimentatu eta barneratu dezan", azaldu dute Etxaurren Haurreskolako hezitzaileek.

Apirilaren 12tik 21era luzatuko da haurreskolan matrikulatzeko epea. Horrez gain, hezkuntza zentroari buruzko informazio gehiago lortzeko beste modu bat dagoela jakinarazi dute Etxaurreneko arduradunek: haurreskolak.eus webgunera sartzea edo 945399727 telefono zenbakira deitzea.

Matrikulazio epea zabalik Aiaraldeko ikastetxeetan



Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Eusko Jaurlaritzako hezkuntza Sailak iragan apirilaren 12an zabaldu zuen, Ikastetxe publiko zein pribatuetan, batxilergoan, haur hezkuntzan edota lanbide heziketan matrikulatzeko epea, apirilaren 23ra arte zabalik egongo dena.

Aurreko urteetan bezala bi bide egongo dira aurrez aurreko matrikulazioa edo internet bidezkoa. Bigarrenetik jotzen duten ikasleek Hezkuntza Sailaren web orrian aurkituko dute hori egiteko bidea.

Behin matrikulazio epea amaituta, maiatzaren 13an aurkeztuko dira behin-behineko zerrendak, maiatzaren 20a baino

lehenago aurkeztu ahalko dira erreklamazioak. Behin betiko zerrendak maiatzaren 27an egingo dituzte publiko.


 www.haurreskolak.eus
945 39 97 27

ETXAURREN HAURRESKOLA

Matrikulazio epea zabalik!
Apirilaren 12tik 21era



Ibaguen auzoa 1, ZUHATZA

 **aresketa ikastola**
Aresketa auzoa, 2
01470 Amurrio (Araba)

Zirrarez beteriko bidaia!


www.aresketaikastola.eus

“Haurraren mugimendu libre da Pikler pedagogiaren giltzarria”

AMAUURRE TXIKIKO ARDURADUNA DA **MAIDER RUIZ**. PIKLER PEDAGOGIAN OINARRITUTAKO JARDUERAK EGITEN DITUZTE BERTAN. METODOLOGIA HONEN INGURUAN MINTZATU DA.

Zer da Pikler pedagogia?

Pikler pedagogia haurren hazkunderari laguntzeko modu bat da, eta haurren jakin-min naturala eta beren garapen-gaitasunak ditu ardatz. Emmi Pikler-ek, Hungariako pediatrik, helduaren zereginari eta haurraren garapen motorrean izan zuen esku-hartzeari buruz ikertu zuen; haren arabera, haurrek, beren ahalmen guztia garatzeko, espazioa, mugimendu-askatasuna eta arropa erosoak baino ez dute behar.

Zein adineko haurrei dago zuzendua?

Pedagogia hau 0 eta 3 urte bitarteko hazkunde-etapa goiztiar eta erabakigarrian oinarritzen da.

Etap hori lantzen ari gara Amaurre Txikin. Haurraren

mugimendu libre da pedagogia honen giltzarria.

Zein da hezitzaileen papera?

Pedagogia honetan, helduak haur bakoitzaren erritmoa errespetatu behar du. Haur bakoitza desberdina den bezala, bere garapen-etapak ere hala dira.

Gure haurtxoei ez diegu zertan bidea erakutsi, baizik eta nori berea egiten uztea garapen autonomoan lagun eginez. Horrek guztiak lagundu egiten dio haurrari bere gaitasunak aurkitzen, bere porrotetatik eta lorpenetatik abiatuta ikasten.

Guri dagokigu motrizitate aske baterako baldintzak ziurtatzea, eta hala egiten dugunean, haren bilakaera harmonian eta segurtasunean nabaritzen da, haren mugimenduetan.



Azpiegitura berezia behar da pedagogia hau aplikatzeko?

Portaera egokia ahalbidetzeko, ingurune fisiko egokia behar da. Horregatik, Pikler metodologiak hainbat material proposatzen ditu, “Pikler altzariak”. Hauei esker hainbat gauza landu ahal dira; oreka, muskuluen indarra, askatasuna, lorpenak, ausardia.



Amaurre Txikin hainbat Pikler altzari dituzte. **Amaurre Txiki**

Eta Amaurre Txikin altzari hauez gozatzeko aukera ematen dugu.

Labirintoa da proposamen piklerianoaren material enblematiko eta identitarioenetako bat. Esperimentua eta aukera ugari eskaintzen ditu, bai mugimenduari lotuak, bai elkarrekintzakoak.

Zeintzuk dira pedagogia honen onurak?

Ugariak dira Pikler pedagogiaren

onurak: Psikomotrizitate-zirkuituak sortzeko aukera ematen du, haurren ikaskuntza motorrean alde egiten duena, modu autonomo eta guztiz librean.

Gainera, haurrek sormena eta irudimena garatzen dituzte, kirola eta jarduera fisikoa sustatzearekin batera. Haurrengarapenean ere eragina du pedagogia honek; haurren giharrak eta hezurak indartzen eta garatzen laguntzen baitu.



**KRISTAU
-ESKOLA**



**LAUDIO
UDALA**

ETORKIZUNA *birpentsatzen*

MATRIKULA ZABALIK

📞 94 672 07 01

INFORMA ZAITEZ!

Laudio
La Milagrosa
Ikastetxea



Laudio Ikastola

“Proiektuetan oinarritutako ebaluazio hezigarriago batera egin behar da jauzia”

IZARO AKARREGI (LAUDIO, 2002) ETA MIREN SOLAN (AMURRIO, 2002) LAUDIO IKASTOLAKO IKASLE-OHIAK DIRA. PANDEMIA BETEAN EGIN ZIOTEN AURRE UNIBERTSITATERA SARTZEKO EBALUAZIO PROBARI. BIZITAKO ESPERIENTZIAREN INGURUAN MINTZATU DIRA.

Nola eragin du pandemiak zuen bizitzetan eta zuen ikasketetan?

Miren Solan: Zailtasunak eta erraztasunak ekarri ditu pandemiak. Hasieran ezjakintasun handia zegoen eta lan handia egin behar izan genuen, gerora egia da unibertsitatera sartzeko hautapropa azterketa, esaterako, errezagoa izan dela.

Izaro Akarregi: Nik uste lan egiteko modu berri honetara ohitzea lortu dugula eta horrek ere eragin duela erraztasunez moldatzea. Emaitzek ere hori erakusten dute.

Unibertsitatean ere berdina zabilazte?

I.A.: Orain arte ikasgai guztiak presentzialak ari dira izaten, eta ez dugu inolako arazorik izan. Ni Zuzenbidea ikasten ari naiz Leioan.

M.S.: Ni Pedagogia ikasten ari naiz Donostian, eta nik ere eskola guztiak aurrez aurrekoak ditut.

Aurreko lauhilekoan konfinatu behar izan nintzen eta eskolak modu telematikoa

jarraitu, baina egia esan nahiko ondo joan zen guztia.

Zertan uste duzue babestu zaituela Ikastolak bizitako pandemia egoera honetan?

I.A.: Komunikazioan laguntza handia jaso dugu, askoz gehiago entzun dira gure kezka eta zalantza. Pandemiaren aurretik buelta gehiago eman behar genituen, orain askoz azkarragoa da komunikazioa.

M.S.: Harreman estuagoa egon da irakasle eta ikaslearen artean. Guk gainera egunero bidaltzen genituen mezuak SelekTibitatea zela eta ez zela, eta momentuan jasotzen genuen irakaslearen erantzuna.

Eskaeraren bat egingo zenikete hezkuntza komunitateari? Ikastolari?

M.S.: Irakaslearen behar eta premiei erantzuteko gaitasuna. Adibide bat jartzearren Ikastolan bigarren atsedena ldi bat ezarri da aurten Batxilergoko ikasleentzako.

Hori guztiz beharrezkoa da, lau ordu jarraian egiten baikenituen.

“Laguntza handia jaso dugu Laudio Ikastolaren partetik, harreman estuagoa egon da irakasleen eta ikaslearen artean”

Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioa aipatu duzue, zelan joan zen zuentzako?

I.A.: Oso ondo! Espero baino hobeto egia esan! Aurreko urteekin alderatuta erraztasunak izan ditugu, eredu aldatu baita. Azterketa eredu berriarekin ez dago A edo B ereduaren artean aukeratu beharrik, askatasun gehiago dago galderabaten edo bestearen artean aukeratzeko.

Aurten ere USE proba bide

beretik joango dela entzun dugu.

M.S.: Erraztasun horiek, ordea, graduatara sartzeko notak altuagoak izatea eragin dute. Exijentzia mailak berdina jarraitzen du izaten baina azterketa on bat egiteko aukerak handitu egin dira. Pedagogian, esaterako, puntu bat igo da nota.

I.A.: Zuzenbidean ere igo egin da langa, 14 puntutik 11 atera behar dira USE proban gradura sartu ahal izateko.

Ebaluazio irizpideak aldatzeko beharra sumatzen duzue?

I.A.: Nota kalifikatzaile batean oinarritutako ebaluazio sistema aldatu beharra dago, bai. Proiektuetan oinarritutako ebaluazio hezigarriago batera egin behar da jauzia.

M.S.: Nire unibertsitateko zenbait irakasgaietan, azterketen beharrean, lanen bidez egiten dugu ebaluazioa. Azterketa baterako eduki bat memorizatu baino, askoz positiboagoa da, norberaren interesetatik informazioa bilatuz eta kontrastatuz eduki hori bera lantzea.

I.A.: Egia da irakasgai bakoitza desberdina dela, horregatik ezin dira ebaluazio irizpide berdinak aplikatu matematikan zein historian.

Zuk zeuk informazioa arakutzen askoz gehiago ikasiko duzu ziur.

Unibertsitatean zaudetela, zer botatzen duzue faltan Laudio Ikastolatik?

M.S.: Guk martxoan utzi genion Ikastolara etortzeari, COVID-19aren ondorioz. Ekainean etorri ginen notak jasotzera, eta kitto! Pena da ezin izan baitugu agurrik ospatu, baina egoera epidemiologikoak hobera egiten duenean antolatu beharko dugu zeozer!

I.A.: Nik, unibertsitatearekin alderatuta, faltan botatzen dut Ikastolako irakaslearen gertutasuna eta laguntzeko prestasuna. Baditut irakasle onak unibertsitatean baina badira batzuk ikasleez paso egiten dutenak.

Nik ere gehien botatzen dudana faltan ikastola ganoraz agurtu ez izana da. 18 urte eman ditut bertan ikasten.

Laudio Ikastola



**BA
TXI
LER
GOA**

**IKASTOLAN
MATRIKULA
ZABALIK**

APIRILAK 23 ARTE

Informazio gehiago jasotzeko:
94 672 67 37
matrikula@laudioikastola.eus



LAUDIO
ikastola
www.laudioikastola.eus

Laudio BHI

“Klasean elkartasun sentimendu handia geneukan”

JONE RUBIO (LAUDIO, 1995) ETA **ANDER ARRIAGA (OROZKO, 1998)** MEDIKUA ETA WEB GARATZAILEA DIRA HURRENEZ HURREN. LAUDIO BHI IKASTETXEAN IKASI ZUTEN BIEK. BERTAN BIZITAKO ESPERIENZIAREN ETA UNIBERTSITATE IKASKETEN INGURUAN MINTZATU DIRA.

Zer ikasi duzue eta zergatik aukeratu zenuten arlo hori?

Jone Rubio: Institutua bukatu ostean Medikuntza gradua egin nuen EHU-n, Leioan, 2013-2019 bitartean. Betidanik izan dut gustuko kriminologia, auzitegiko medikuntza eta ospitaleekin erlacionatutako telesailak eta institutuan ere giza gorputzaren anatomia eta fisiologia asko interesatzen zitzaizkidan.

Medikuntza ikastearen erabakia ia erabat argi neukan, eta etxean zein institutuan asmo hori sendotzen eta lortzen lagundu zidaten. Ander Arriaga: Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua ikasi dut Euskal Herriko Unibertsitatean, San Mameseko fakultatean hain zuzen ere. Txikitatik gustatu izan zaizkit bideojokoak eta matematikak, eta horrekin zerikusia zuen zeozer ikasi nahi nuen. Etxean Informatika

Ingeneritzaren unibertsitateko gradua existitzen zela aipatu zidaten eta orduz geroztik argi neukan hori ikasi nahi nuela.

Institutuko garaitik, zein da gehien baloratzen duzuen bizi izandako esperientzietatik?

J.R.: Klasean talde moduan geneukan elkartasun sentimendua eta irakasleekiko harreman hurbila dira gehien baloratzen ditudanak.

Irakaskuntza aldetik ere banan-banakako formakuntza nabaria goa da institutu garaian, irakasleek ikasle bakoitzaren berezitasunak eta ikasteko zailtasun indibidualak kontuan hartzen dituztelako, azaldu beharrekoak klasearen ezaugarrietara moldatzeko.

Ikasketa horiek oinarri egokiak izan dira unibertsitateko ikasketak aurrera eramateko?

A.A.: Bai. Institutuan landutako talde lana, esaterako, oso garrantzitsua da guretzat eta hori helara-


zi digute graduaz zehar. Taldekako lanpila bat izan ditugu unibertsitatean eta bertan, lana bezaingarrantzitsua ziren taldeko kideak.

Gainera, zorte handia izan dut, institutuko beste bikiderekinegon bainaiz graduaz eta talde bikaina ginen eta bagara oraindik ere.

Alde handia sumatu zenuten institututik fakultatera?

J.R.: Niretzat, aurretiaz inor ez ezagutzea eta institutuan ikasle guztion artean eta irakasleekiko geneukan lotura galtzea izan ziren aldaketarik nagusienak. Hala ere 180º-ko aldaketa hori ezinbestekoa dela uste dut gaitasun sozialak landu, apurka-apurka zure gain erantzukizun gehiago hartu eta pertsona moduan hazten jarraitu ahal izateko. Denbora kontua besterik ez da egoera berri horretara egokitzea.

Zeintzuk dira zuen asmoak lan munduari begira?



Jone Rubio

Medikua

“Helburua argi daukatenentzat: ez amore eman”



Ander Arriaga

Web garatzailea

“Talde lana oso garrantzitsua da guretzat”

A.A.: Accenture enpresan egin nituen praktikak, eta orain, gradua bukatu dudala, bertan nago lanean. Hala eta guztiz ere, ez dakit nora eramango nauen etorkizunak. Ezin zaio ezerri ezetz esan.

J.R.: 2019an gradua bukatu eta 2020an mediku espezialista moduan jardunahalizateko ia ezinbestekoa den azterketa egin nuen.

Ostean, Barne Medikuntza espezialitateak aukeratu nuen, Donostiako Ospitalean. Sei hilabete darmatzat bertan bizitzen eta 1. mailako mediku egoiliar moduan lan egiten, eta 5 urte ditut aurretik.

Zein aholku emango zeniekete Batxilergoa ikasten daudenei?

J.R.: Helburua argi daukatenentzat, amore ez emateko. Batxilergoa unibertsitaterako sarbide frogagainditzeko bideratuta dagoen fase moduan gogoratzen dut nik.

Gogoko ez nituen ikasgaiak ikasibehar nituenean interesagaltzen nuen, baina erronka modukoa izaten zen unibertsitateetik apur bat gertuago sentitzeko.

Euren etorkizunaren inguruko zalantzak dituztenentzat, aldiz, pazientzia izan dezatela. Bi urte nahikoa dira erabakiak hartzeko.



IES LAUDIO BHI

2021-2022

Aurrematrikula epea

Aprilaren 12tik 23ra arte
(online edo presentziala)



- ZIG
- GELA
INFORMATIZATUAK
- HNP

- HEZKIDETZA
- ERASMUS +
- AGENDA 21

BATXILERGO GUZTIAK

- ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- ARTEA

Erdi mailako zikloak:
ESTETIKA ETA EDERGINTZA

Oinarrizko lanbide heziketa:
ILEAPAINKETA

Hezkuntza Aiaraldean



Kirikiñoren baratza, uzta jasotzeko prest

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

2019ko martxoan ekin zion Kirikiño Atsedeen Taldeak baratza bat atontzeko proiektuari. Audioko baratza publikoetan eskuratutako lursail batean abiatu zuten egitasmoa, eta bi urteko epean hirukoiztu egin dute ia proiektuaren hedadura.

Auzolanean eraikitako baratza da Kirikiñorena "herritarren arteko sareak eta komunitatea eratzen jarraitzea" helburu duena.

Haurren neurria

Auzolanean eraikia izateaz gain, haurren neurria egin ere bada. Baratzaren azpiegituraren barruan jolas-parkea ere altxatu baitute. Haurrak izan dira jolas-parkearen diseinuaz arduratu direnak, behar desberdinei erantzuteko. Material

Landare truke azoka, ipuin-kontalaria eta zianotipia tailerra antolatu dituzte datorren apirilaren 25erako

birziklatuak erabili dituzte horretarako, eta uda sasoirako egongo da erabilgarri.

Landare truke azoka

2019an hasitako elikadura proiektuarekin aurrera jarraituz apirilaren 25ean landare truke azoka egingo dute. Haur, gazte eta helduentzako jardueraz izango da. Parte hartzeko interesa duen orok partekatu nahi dituen landareak eramatea besterik ez du. Eguna borobiltzeko, zianotipia tailerra eta ipuin kontalaria egingo dituzte.

Uda sasoi baratzean

Udan ortuan lan egin nahi duen herritar orori parez pare zabalduko dizkiote baratzeko ateak. Horretarako, hainbat asanblada antolatuko dituzte, baita lan egunak ere: maiatzaren 23an eta ekainaren 6an.

Aintzinako Andra Mari

Urduñatik etorkizunera begira, goi-mailako informatika ziklo berria

Josefinos-en Zentroko hezkuntza-etapetan izandako esperientzia eta lan urteengatik, argi daukagu gizarteak eskatzen dituen aldaketetara eta eszenatoki berrietara egokitu behar dela. Horregatik, une honetan eta pandemiarekin bizi izan dugun egoeraren ondoren, erronka berri bat proposatu dugu.

Gure hezkuntza-eskaintzan informatikako goi-mailako ziklo bat sartzea. Zehazki, plataforma

anitzeko aplikazioak garatzeko goi-mailako teknikaria da.

Lan-merkatuak erantzunak bilatu nahi dizkio 2021ean gehien bilatutako lanbideei. COVID-19aren pandemiak krisi bat eragin zuen lan-merkatuan, baina ez zegoen digitalizatuta, ezta telelanerako prestatuta ere.

Hala ere, teknologia-sektorearentzako aukera ere izan zen. Koronabirusa iritsi eta urtebetera, 2 lan-eskaintzatik 1 enplegu digitalak dira, goranzko

joera. Lanaren trantsizio birtuala susta dezaketen sektoreak izango dira protagonistak. Arlo digitalak talentu berriak atzemateak areagotzen du, eta prestakuntza teknikoak gero eta espezializatuagoa da. Estrategia digitala eraikiko duten profilak ere eskatzen dira.

Young Business Talents

Aintzinako Andra Mari Ikastetxean, gero eta gehiago lan egiten dugu proiektuekin, Batxilergoko

ikasle batzuek parte hartu dute Young Business Talents (YBT). lehiaketa 10. edizioaren azken fase-rako sailkatu dira. Finala maiatzaren 7an ospatuko da, streaming bidez, COVID-19ak sortutako egoera dela-eta. Bizkaian sei ikastetxek hartu dute parte lehiaketan, eta sailkatutako lehenengo hiru taldeak Txefos ikastetxekoak izan dira.

Ikasketa prozesu integrala

0-20 urte bitarteko pertsonak prestatzen jarraituko dugula, gure

programen, gure erronken, gure proiektuen, bizikidetzaren lantzeko apustuaren, gatazken konponbidearen eta, batez ere, balioak sustatzearen bidez.

Hori guztia hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzari esker egin daiteke, irakasleen konpromisoa eta inplikazioa, hurbiltasuna eta familien berotasuna kontuan hartuta, funtsezko zutabea baita gure ikasleek bilakaera egokia izan dezaten, zailtasunak izan arren.



INFORMAZIOA:

orientacion@colegiojosefinos.com

945 384 830

AINTZINAKO ANDRA MARIA IKASTETXEA URDUÑA

BATXILERGOA

> ZIENTZIAK

> GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

- Ikasleengandik gertu

- Metodologia digitala

- Orientazio akademikoa eta profesionala

GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOA

> INFORMATIKA MULTIPLATAFORMA ANITZEKO

APLIKAZIOEN GARAPENEAN GOI-MAILAKO TEKNIKARIA



Sareko informatika sisteman administrazioko goi-mailako teknikaria



Zaraobe

Zaraobeko ikasleek aktiboki hartu dute parte unibertsitateek antolatutako lehiaketetan eta zenbait sari irabazi dituzte



Batxilergoan zehar unibertsitateekiko harremana etengabea da. Hitzaldiak, bisitaldiak, ate irekiak edota orientazio azokak sekulako tresnak dira ikasleek etorkizunari buruz hausnar dezaten. Horiekin batera, fakultate ezberdinek antolatutako lehiaketak daude, Olinpiadaizenburuean askotan. Ikastetxeetan oso harrera ona daukate, motibatzen tresna politak direlako, fakultate ezberdinak ezagutzeko aukera ematen dietelako, eta sormena lantzeko aukera ona delako.

Zaraobeko ikasleek azken hilabeteetan lehiaketa horietako hiruretan hartu dute parte, bai eta etekin ona ateratu ere, hainbat sari irabaziz: filosofia olinpiada, geografia olinpiada eta poster lehiaketa.

Filosofia olinpiada

“Askatasuna edo segurtasuna?” dilema horri egin diote aurre filosofia olinpiadara aurkeztu diren Zaraobeko ikasleek. Aurtengoa lehenengo urtea izan da lehiaketa honetan parte hartzen dutela eta ikastetxeko 4 ikasle finalista izan ziren.


Gainera marrazketa filosofiko arloan DBH2 mailako ikasleak izan dira finalistak eta horietako batek estatu mailako txapelketara egin du jauzia.

Geografia olinpiada

Olinpiada honen helburua ikasleek diziplina zientifiko honekiko duten interesa sustatzea da Covid-19 dela eta, aurten ON LINE izan da eta ikasleek test moduko 50 galderari egin behar izan diete aurre. Batxilergoko 2. mailako ikasleak martxoaren 12an neurtu ziren olinpiada honetan.

Poster Lehiaketa

Mitologiaklasikokomunstroak arte plastikoetan zen SEEC-ek antolatutako poster lehiaketaren gaia, eta June Morenok eta Olaia Barinagak, 1. eta 2.saria irabazi dute.



Zaraobeko ikasleak European barrena dira aurten ere



Pandemiak ez ditu Zaraobeko ikasle eta irakasleak gelditu, eta beste urte batez Erasmus programa abiatu dute. Gaur gaurkoz hainbat dira Europako hainbat herrialdetan praktikaldia egiten ari diren ikastetxeko gazteak.

Zailtasunei aurre egiten

Beste ikasturte batzuetan baino zailtasun gehiago izan dituzte. Ikasleei PCR ugari egin dizkiete, baina, azkenean iritsi dira helmugara.

Zaraobe Institutuak mekatronika industrialeko goi-mailako zikloko bi ikasle ditu gaur egun Holandan. Bulgarian ere badira Amurrioko zentroko ikasleak: mantenimendu elektronikoko erdi-mailako zikloko bost ikasle eta mendekotasuna duten pertsonen arreta eskaintzeko erdi-mailako zikloan ikasten ari diren beste bi ikasle. Azken ziklo honetako beste bi ikasle ere Portugalera bidaiatu dute, formazio akademikoa bertan bukatzeko. Hain zuzen Zaraobe da nazioartera ikasleak bidali dituen EAEko ikastetxe bakarra.

Erasmus + programa

Lanbide Heziketa zikloen kalitatea hobetzea da Europa mailako Erasmus+ programaren

Bulgarian, Holandan eta Portugalen ari dira formakuntza akademikoa jasotzen Zaraobe BHIko 11 ikasle

helburu nagusia. Egitasmo akademikoa mugikortasun aukerak eskaintzen ditu formazio akademikoa atzerrian egin nahi duten ikasleentzat.

Horretaz gain, enpresa eta ikastetxe desberdinen arteko aliantza estrategikoak sustatzea ere du xede, enplegu eta garapen pertsonalerako aukerak biderkatuz, eta Europa mailako konpetitibitate ekonomikoa bultzatuz.

Irakasleentzako aukera profesionala ere bada Erasmus+ programa. Konpetentzien garapena, ezagutza berriak eskuratzea eta ezagutzen modernizazioa eskaintzen baitie

Ibilbide luzea nazioarteko proiektuetan

Zaraobe BHI ikastetxea 2000. urtetik dago murgilduta nazioarteko ikasketa proiektuetan, herrialde desberdinetako enpresetan ikasleen praktikaldiak eginez. Asko izan dira programaz baliatu diren ikasleak.

Programak martxotik ekainera bitarteko 400 orduko praktikaldia barnebiltzen du, eta horrekin batera bi asteko hizkuntza ikastaroa ere.

Ikasleak etengabeko ebaluazioa eta jarraipena jasotzen du tutore eta irakasleen aldetik.

Zaraobe



LANBIDE HEZIKETA



- Eredu eleanitza goi mailako zikloan
- Metodologia aktiboak, erronketan oinarrituta
- Prestakuntza DUALA ziklo industrialetan
- Erasmus programa

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA



ZURGINTZA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

MANTENTZE - LAN
ELEKTROMEKANIKOAMENDEKOTASUN
EGOERAN DAUDEN
PERTSONEI ARRETA

MEKANIZAZIOA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

MEKATRONIKA
INDUSTRIALAGIZARTE
INTEGRAZIOA

*Baieztapen ofizialaren zain

MATRIKULAZIOA

Apirilaren 12tik 23ra

BATXILERGOA

- D eredua
- Banakako orientazio akademiko profesionala
- Informazio eta komunikazio teknologiak eskura
- Goimailako emaitzak

GIZA ETA GIZARTE
ZIENTZIAK

ZIENTZIAK

BIZITZARAKO KONPENTENTZIAK LANTZEN
PEDAGOGIA BERRITZAILEEN BIDEZ IKASI:

- Ikasiz
- Elkarbiziz
- Pertsona izanez
- Komunikatuz
- Emozioak kudeatuz

Etxebarriaur kalea, 6 01470 Amurrio, Araba
945 39 30 00 // zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.net



@zaraobeinsti



Laudioalde



Oinarrizko lanbide heziketa

Soldadura

Erdi mailako heziketa zikloak

Administrazio-kudeaketa

Instalazio Elektriko eta Automatikoak

Mantentze-lan Elektromekanikoa

Mekanizazioa

Soldadura eta Galdaragintza

Batxilergoa (euskaraz eta gaztelaniaz)

Zientziak

Giza eta Gizarte Zientziak

Goi mailako heziketa zikloak

Zuzendaritzari laguntza ematea

Administrazioa eta Finantzak

Sistema Elektromekanikoak eta Automatizatuak

Automatizazio eta Robotika Industrialak

Mekatronika Industrialak

Fabrikazio mekanikoko
Produktzioaren Programatzea



BATXILERGO AURREMATRIKULA EPEA:

Aurrematrikula presentziala: **apirilaren 12tik 23ra** bitartekoa izango da.

Hala ere, eskabideak **on-line** aurkeztu ahal izango dira **apirilaren 12tik aurrera**.

Formato digitalean bakarrik; <http://www.euskadi.eus/admision-y-matriculacion-bachillerato/web01-a2hikast/es/>

LANBIDE HEZIKETA AURREMATRIKULA EPEA:

Laster azalduko dira

Virgen del Carmen, 17 01400 **LAUDIO** (Araba)

Tel: 946 72 05 05 Fax: 946 72 10 57 **secretaria@audioalde.eus** www.audioalde.eus